## JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

### Zk-2058

AGINDUA, 2003ko azaroaren 26koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, Erizaintzako Diplomatuen Gipuzkoako Elkargo Ofizialaren estatutuak onartzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua onartu zuen abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 10.22 artikuluan ezartzen denez, Profesionalen Elkargoen eta Tituludun Lanbideen alorreko eskumena Euskal Autonomia Erkidegoari baino ez dagokio, Espainiako Konstituzioaren 36. eta 139. artikuluetan agindutakoa hautsi gabe, betiere. .

Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legea aipatu eskumenaren indarrez eman zen. Lege horren 33. artikuluan ezartzen denez, elkargoen estatutuak eta horien aldaketak Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari jakinarazi beharko zaizkio. Gero, sail horrek, estatutuok legearen barruan daudela egiaztatu ondoren, behin betiko onartuko ditu, agindu baten bitartez. Azkenik, agindua, estatutuekin batera, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da eta Tituludun Lanbideen Erregistroan inskribatuko.

Erizaintzako Diplomatuen Gipuzkoako Elkargo Ofizialaren estatutuak legearen araberakoak direla egiaztatuta, Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legeak ematen dizkidan eskumenak erabiliz, hau

EBATZI DUT:

*1. artikulua.–* Onarpena.

Gipuzkoako Erizainen Elkargo Ofizialaren estatutuak onartzea, eta honako hau adieraztea: administrazio- edo lan-zuzenbidearen bidez araututako zerbitzu-harremanaren bitartez Administrazioari lotutako erizaintzako profesionalei ez zaie exijituko Elkargoan sartzea lanbidean jardun ahal izateko, baldin eta euren egitekoen barruan burutzen dituzten egintza profesionalen zuzeneko hartzaileak herritarrak ez badira.

Administrazio- edo lan-zuzenbidearen bidez araututako zerbitzu-harremanaren bitartez Administrazioari lotutako erizaintzako profesional guztiei ez zaie exijituko Elkargoan sartzea, Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legearen bigarren xedapen iragankorrean adierazitako Dekretua indarrean jartzen denetik aurrera. Hala ere, lanbidean arlo pribatuan jardun nahi badute, beharrezko izango dute elkargokide egitea,

## DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

### N°-2058

ORDEN de 26 de noviembre de 2003 del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social Por la que se aprueban los Estatutos del Colegio Oficial de Diplomados en Enfermeria de Gipuzkoa.

El Estatuto de Autonomía para el País Vasco, aprobado por Ley Orgánica 3/1979 de 18 de diciembre, en el artículo 10.22, establece la competencia exclusiva de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de Colegios Profesionales y el ejercicio de las profesiones tituladas, sin perjuicio en lo dispuesto en los Artículos. 36 y 139 de la Constitución Española.

La Ley 18/1997, de 21 de noviembre, de ejercicio de profesiones tituladas y de Colegios y Consejos Profesionales, dictada en virtud de la citada competencia, establece en su artículo 33 que los estatutos colegiales, así como su reforma, serán comunicados al Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social del Gobierno Vasco para su aprobación definitiva, previa verificación de su legalidad, mediante Orden que será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco conjuntamente con los estatutos e inscrita en el Registro de Profesiones Tituladas.

Verificada la adecuación a la legalidad de los Estatutos del Colegio Oficial de Diplomados en Enfermería de Gipuzkoa, en virtud de las competencias que me otorga la Ley 18/1997, de 21 de noviembre, de ejercicio de profesiones tituladas y de Colegios y Consejos Profesionales

RESUELVO

***Artículo 1.–*** Aprobación

Aprobar los Estatutos del Colegio Oficial de Enfermería de Gipuzkoa indicando, a efectos de seguridad jurídica, que a los profesionales de enfermería vinculados con la Administración pública mediante relación de servicios regulada por el Derecho administrativo o laboral cuyas funciones comprendan la realización de actos profesionales cuyos destinatarios inmediatos no sean los ciudadanos no podrá serles exigida la incorporación al Colegio para el ejercicio de la profesión.

Dicha incorporación no podrá ser exigida a todos los profesionales de enfermería vinculados con la Administración pública mediante relación de servicios regulada por el Derecho administrativo o laboral una vez entre en vigor el Decreto contemplado en la Disposición Transitoria Segunda de la 18/1997, de 21 de noviembre, de ejercicio de profesiones tituladas y de Colegios y Consejos Profesionales. No obstante, precisarán de colegiación para el ejercicio privado de su profesión, si así

azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 30. artikuluan jasotakoaren arabera beharrezkoa baldin bada.

*2. artikulua.–* Argitalpena.

Erizaintzako Diplomatuen Gipuzkoako Elkargo Ofizialaren estatutuak agindu honen eranskinean argitaratzea.

*3. artikulua.–* Inskripzioa.

Erizaintzako Diplomatuen Gipuzkoako Elkargo Ofizialaren estatutuak Tituludun Lanbideen Erregistroan inskriba daitezen agintzea, erregistroa formalki osatzen den unean.

Azken xedapen bakarra.– Eraginkortasuna.

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko azaroaren 26a.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

fuere exigible, de conformidad con lo previsto en el artículo 30 de la citada Ley 18/1997, de 21 de noviembre.

*Artículo 2.–* Publicación

Ordenar la publicación de los Estatutos del Colegio Oficial de Diplomados en Enfermería de Gipuzkoa como Anexo a la presente Orden.

*Artículo 3.–* Inscripción

Ordenar la inscripción de los Estatutos del Colegio Oficial de Diplomados en Enfermería de Gipuzkoa en el Registro de Profesiones Tituladas en el momento en que éste sea constituido formalmente.

Disposición Final Única.– Efectividad.

La presente Orden surtirá efectos a partir del día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 26 de noviembre de 2003.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

## JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILBURUAREN 2003KO AZAROAREN 26KO AGINDUAREN ERANSKINA

Erizaintzako Diplomatuen Gipuzkoako Elkargo Ofizialaren estatutuak

### HITZAURREA

Elkargoa honako hauetara egokitu beharra dagoelako landu eta onartu dira estatutu hauek:

a) Indarrean dagoen legeria (Estatuko 2/1974 Legea, jarraian izan dituen aldaketa eta guzti; eta Eusko Legebiltzarraren 18/1997 Legea).

b) Espainiako Erizainen Elkargoaren, Kontseilu Nagusiaren eta Lanbidearen Antolamenduaren estatutu orokorrak, azaroaren 8ko 1231/01 Errege Dekretuaren bidez onartu zirenak. Izan ere, estatutu horien 1.3. artikuluak honako hau dio: »Elkargo bakoitzak bere estatutuak landuko ditu Elkargoaren funtzionamendua arautzeko; Lanbide Elkargoei buruzko estatuko Legearen xedapenei eta gai horri buruz autonomia erkidegoan dauden legeei jarraituko zaie, eta Elkargo horiek Kontseilu Nagusiarekin izango dituzten harremanei dagokienez, estatutu orokor hauetan ezarritakoa hartuko da kontuan».

c) Zuzenbide publikoko korporazio gisa Profesionalen Elkargoek daukaten ikuspegi soziala; lanbideko jardueraren hartzaileari gehiago begiratuko zaio profesionalari berari baino.

## ANEXO A LA ORDEN DE 26 DE NOVIEMBRE DE 2003 DEL CONSEJERO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

Estatutos del Colegio Oficial de Diplomados en Enfermeria de Guipúzcoa

### PREAMBULO

La elaboración y aprobación de estos Estatutos Colegiales se explica o justifica por la necesidad de adaptar la organización colegial a:

a) La legislación vigente(Ley 2/1974 del Estado con sus modificaciones posteriores y Ley 18/1997 del Parlamento Vasco).

b) Los Estatutos generales de la Organización Colegial de Enfermería de España, del Consejo General y de la Ordenación de la actividad profesional, aprobados por RD 1231/01, de 8 de noviembre, que disponen, en el párrafo tercero del art. 1.º, que «Los Colegios elaborarán sus propios Estatutos particulares para regular su funcionamiento, con arreglo a las disposiciones de la Ley de Colegios Profesionales estatal y a la legislación autonómica sobre la materia, y, en todo caso, con respecto a lo establecido en estos Estatutos Generales en lo relativo a las relaciones de dichos Colegios con el Consejo General».

c) La visión social de los Colegios Profesionales como Corporaciones de Derecho Público, que residencia la razón de ser más de los mismos más en los destinatarios del ejercicio de la profesión que en los propios profesionales.

d) Autonomia Erkidegoetan banatutako Estatuaren antolamendu politikoa; antolamendu horrek oinarrizko arauen artean (Estatuaren eskumena) eta lanbideen eta profesionalen elkargoen arauen artean (autonomia erkidegoen eskumena) koordinazioa egotea eskatzen du, besteak beste.

I. XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua.*– Gipuzkoako Erizainen Elkargo Ofizialaren izaera.

Gipuzkoako Erizainen Elkargo Ofiziala zuzenbide publikoko korporazioa da, Legearen babesa duena, Estatuak eta Euskal Autonomia Erkidegoak onartua, bere nortasun juridikoa eta bere ondarea duena, eta bere helburuak betetzeko gaitasun osoa duena. Horregatik, indarrean dauden legeen arabera, honako hauek egin ditzake Elkargoak bere helburuak betetzeko: edozein motako ondasun eta eskubideak erosi, saldu, besterendu, eduki, errebindikatu, trukatu eta kargatu; kontratuak gauzatu; obligazioa hartu eta ekintzak gauzatu; eta bide eta jurisdikzio guztietan errekurtsoak aurkeztu.

*2. artikulua.*– Barneko egitura eta funtzionamendu-erregimena

1.– Gipuzkoako Erizainen Elkargo Ofizialaren barne-erregimena eta funtzionamendua gure ordenamendu juridikoan dauden printzipio demokratikoen araberakoa izango da. Hona hemen zein diren printzipio horiek: kideen arteko berdintasuna, gobernu-organoen hautaketa demokratikoa, erabakiak gehiengoaren bidez hartzea (Estatuko Administrazioa eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa ez dira kontuan hartuko —Elkargoa ez dago-eta horien barruan—, baina horrek ez du esan nahi Administrazioarekin zuzenbide publikoko harremanik ezin duenik izan).

2. Elkargoak askatasun osoz gauzatzen ditu bere helburuak eta egitekoak, Estatutu hauetan eta Elkargoari eragiten dioten europako, estatuko eta autonomia erkidegoko lege eta xedapenetan ezarritakoaren arabera.

3. Elkargoa honako arau hauen arabera eraenduko da:

a) Oro har edo kasu bakoitzean aplikatu beharrekoak diren europako, estatuko eta autonomia erkidegoko xedapen arau-emaileak.

b) Estatutu hauek eta Gipuzkoako Erizainen Elkargo Ofizialeko gobernu-organoek hartzen dituzten erabakiak.

c) Espainiako Erizainen Elkargoaren, Kontseilu Nagusiaren eta Erizaintzaren Antolamenduaren estatutu orokorrak eta Kontseilu Nagusiak edo bere organoek emandako gainerako xedapenak, lehen xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

4.– Gipuzkoako Erizainen Elkargoak bere egiten ditu nazioarteko, europako, estatuko eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeek euren eskumenen esparruan erabakitzen dituzten arau deontologikoak, baldin

d) La organización política del Estado en Autonomías, que exige, entre otras cosas, la necesaria coordinación entre las normas básicas, competencia del Estado, y las normas reguladoras de las profesiones y de los Colegios Profesionales, competencia de las Autonomías.

I. DISPOSICIONES GENERALES

*Articulo 1.*– Naturaleza del Colegio Oficial de Enfermería de Gipuzkoa.

El Colegio Oficial de Enfermería de Gipuzkoa es una Corporación de Derecho Público, amparada por la Ley y reconocida por el Estado y la Comunidad Autónoma del País Vasco, con personalidad jurídica y patrimonio propios y con plena capacidad para el cumplimiento de sus fines. En consecuencia, y de acuerdo con la legalidad vigente, puede adquirir, vender, enajenar, poseer, reivindicar, permutar, gravar toda clase de bienes y derechos, celebrar contratos, obligarse y ejercitar acciones e interponer recursos en todas la vías y jurisdicciones para el cumplimiento de sus fines.

*Articulo 2.*– Estructura interna y régimen de funcionamiento

1. La estructura interna y el funcionamiento del Colegio Oficial de Enfermería de Gipuzkoa se regirá por los principios democráticos reconocidos en nuestro ordenamiento jurídico, es decir, igualdad de sus miembros, elección democrática de sus órganos de gobierno, adopción de los acuerdos mayoritariamente, con independencia de la Administración del Estado y de la Comunidad Autónoma del País Vasco, de las que no forma parte y, sin perjuicio de las relaciones de derecho público que con ellas le correspondan.

2. El Colegio ejerce sus fines y funciones propios con plena autonomía en los términos del presente Estatuto y de las leyes y demás disposiciones europeas, estatales y autonómicas que le afecten.

3. El Colegio se regirá por las siguientes normas:

a) Las disposiciones normativas europeas, estatales y autonómicas que resulten de aplicación con carácter general o particular a cada caso.

b) El presente Estatuto y los acuerdos que adopten los órganos de gobierno del Colegio Oficial de Enfermería de Gipuzkoa.

c) Los Estatutos Generales de la Organización Colegial de Enfermería de España, del Consejo General y de la Ordenación de la actividad profesional de enfermería y demás disposiciones emanadas del Consejo General o de sus órganos, conforme a lo establecido en su disposición adicional primera.

4. El Colegio de Enfermería de Gipuzkoa asume como propias, en cuanto no invadan las competencias que tiene atribuidas, las normas deontológicas que acuerden, en el ámbito de sus respectivas competencias, los

eta Elkargoari esleitu zaizkion eskumenak hartzen ez badituzte. Arau horien artean edo arau horien eta Estatutu hauen artean desadostasunik edo interpretazio-arazorik sortuz gero, bezeroaren/gaixoaren eskubideak eta interesak eta lanbidearen duintasuna edo gizartean duen begirunea gehien babesten dituena aplikatuko da.

*3. artikulua.–* Elkargokideen parte-hartzea.

Elkargokideek, gutxienez, honako bide hauek erabiliko dituzte Elkargoaren antolamenduan eta funtzionamenduan parte hartzeko:

a) Botoa emateko eta hautagai izateko eskubidea, Estatutu hauetan ezarritakoaren arabera gobernu-organoko kideak aukeratzerakoan.

b) Estatutuetan ezarritako moduan proposatutako ekimenen bitartez, gobernu-organoen jarduna sustatzeko eskubidea.

c) Elkargoaren interes espezifikoen ordezkari izango diren taldeak edo sailak sortzeko eskubidea (talde edo sail horiek Elkargoaren gobernu-organoen menpe egongo dira).

d) Zentsurazko botoen bidez gobernu-organoetako titularrak kargutik kentzeko eskubidea; Estatutu hauetan ezarritakoari jarraituz egingo da hori.

*4. artikulua.–* Izena, helbidea eta lurralde-eremua.

1.– Gure korporazio probintzialaren izen ofiziala honako hau izango da: «Colegio Oficial de Enfermería de Gipuzkoa – Gipuzkoako Erizaintza Kolegio Ofiziala»; protokoloa betez, «goren» titulua emango zaio -historikoki dagokiona-, eta Elkargoaren lehendakaria ere «txit gorena» izango da.

Gipuzkoako Erizainen Elkargo Ofizialaren izen laburtua «COEGI» izango da.

2.– COEGIren helbidea honako hau da: Maestro Santesteban kalea, 2, 1.a, Donostia. Halaber, Gobernu Batzordeak herri desberdinetan ordezkaritzak irekitzea erabaki dezake, komeni dela uste badu.

3.– COEGIren lurralde-eremua Gipuzkoako Lurralde Historikoari dagokiona izango da, eta probintzia horren barruan ezingo da sortu lanbide beraren beste elkargorik. Horrek ez du esan nahi, eremu horretatik kanpo jardun ezin duenik; aitzitik, burutu behar dituen ekintzen arabera, estatuan edo nazioartean barrena jardun ahal izango du, baldin eta indarrean dagoen legerian ezarritakoa betetzen badu.

*5. artikulua.–* Helburuak.

Elkargoaren helburua erizaintzako lanbidea eta elkargokideen interes profesionalak esklusiboki ordezkatzea eta defendatzea da, gizartean dauden interes eta behar orokorrekin bat etorriz.

*6. artikulua.–* Egitekoak.

organismos internacionales, europeos, estatales y vascos de la Enfermería. En el supuesto de discrepancia o duda interpretativa entre dichas normas entre sí o con las del presente Estatuto, se aplicará la que en mejor medida proteja los derechos e intereses del cliente/paciente y la dignidad o consideración social de la profesión.

*Articulo 3.–* Participación de los colegiados

La participación de los colegiados en la organización y funcionamiento del Colegio se desarrollará como mínimo, a través de las siguientes vías:

a) El derecho de sufragio activo y pasivo para la elección de los miembros a los órganos de gobierno, de acuerdo con los presentes Estatutos.

b) El derecho a promover actuaciones de los órganos de gobierno por medio de iniciativas formuladas en los términos estatutarios.

c) El derecho a crear agrupaciones o secciones representativas de intereses específicos en el seno del Colegio, con sometimiento en todo caso a los órganos de gobierno de éste.

d) El derecho a remover a los titulares de los órganos de gobierno mediante votos de censura, cuya tramitación se regulará de acuerdo con lo establecido en los presentes Estatutos.

*Articulo 4.–* Denominación, domicilio y ámbito territorial

1.– La denominación oficial de nuestra corporación provincial será: Colegio Oficial de Enfermería de Gipuzkoa – Gipuzkoako Erizaintza Kolegio Ofiziala, distinguiéndose protocolariamente con el título de Ilustre, que históricamente le corresponde y de ilustrísimo a su Presidente.

La denominación abreviada del Colegio Oficial de Enfermería de Gipuzkoa será «COEGI».

2.– El domicilio del COEGI se fija en San Sebastián, en la C/ Maestro Santesteban 2-1.º , o en aquella otra dirección que se establezca por acuerdo de la Junta de Gobierno, órgano que podrá acordar abrir Delegaciones en cuantas localidades considere conveniente.

3.– El ámbito territorial del COEGI será el correspondiente al Territorio Histórico de Gipuzkoa, dentro del cual no podrá crearse ningún otro de la misma profesión, sin que ello suponga una limitación en sus actuaciones, que podrán abarcar todo el territorio nacional o internacional en función de las concretas actuaciones a desarrollar, con respeto, en todo caso, de lo establecido en la normativa vigente.

*Articulo 5.–* Fines

El Colegio tiene por finalidad la representación exclusiva y la defensa de la profesión de enfermería y de los intereses profesionales de los colegiados en congruencia con los intereses y necesidades generales de la Sociedad.

*Artículo 6.–* Funciones

Honako egiteko hauek ezarri zaizkio COEGIri, bere helburuak betetze aldera:

a) Lanbidearen etika eta duintasuna, bai eta herritarren eskubide eta interesak ere, errespetatzeaz arduratzea; elkargokideen jardunak lanbidearen arau deontologikoei eta zerbitzatzen duten gizarteak egindako eskaerei men egingo diela ziurtatuko du, eta horrela, guztiz bermatuta geldituko dira erizaintzako jardunarekin loturiko interes orokorrak.

b) Lanbidearen jarduna antolatzea, dagokion eremuan eta ezarritako lege-esparruaren barruan.

c) Zehatzeko eskumenaz baliatzea, azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 19. artikuluan ezarritako moduan.

d) Lanbideko ordainsari-baremoak ezartzea —orientagarriak izango dira—.

e) Laneko ordainsariei buruzko alderdiren bat edo erizaintzako jardunarekin lotutako beste edozer eztabaidatzen den prozesu judizialetan edo administrazio-prozeduretan txostena egitea.

f) Elkargokide guztientzako zerbitzuak eskaintzea, eta bereziki, eskaintzen dituzten zerbitzu profesionalen kalitate egokiaz arduratzea; horretarako, hobekuntza eta etengabeko prestakuntza profesionala sustatuko ditu, eta prestakuntza hori eraginkorra izateaz arduratuko da.

g) Titulurik gabeko erizaintzako lanbideen prestakuntza zaintzea, herritarren eta euskal osasun sistemaren eskaera eta beharrei ahalik eta ondoen erantzun ahal izateko.

h) Osasun-kontuetan beharrik gehien duten gizarteko sektoreen prestakuntza zaintzea.

i) Arbitraje bidez edo artekaritza eginez, elkargokideen artean sortzen diren lanbide-gatazketan parte hartzea, baita elkargokideek hirugarrenekin dituzten gatazketan ere, baldin eta parteek adostasunez hala eskatzen badute.

j) Herri Administrazioarekin lankidetzan jardutea interes komunak lortzeko. Eta bereziki, COEGIk, honako hauek egingo ditu:

–Administrazio-organoetan parte hartzea, organo horien arauek hala aurreikusten dutenean; arau horietan ezarritako moduan jokatu beharko dute.

– Eskumena duten organo eta enteek eskatzen dizkioten edo bere ekimenez lantzen dituen txostenak ematea.

– Eskatzen zaizkion estatistikak egitea.

k) Bidegabeko lehia eta intrusismoa ekiditeko beharrezkoak diren neurriak hartzea, ordenamendu juridikoan aurreikusitako ekintzen bitartez.

Para la consecución de sus fines, el COEGI tiene asignadas las siguientes funciones:

a) Velar por la ética y dignidad profesional, así como por el respeto a los derechos e intereses de los ciudadanos, asegurando que la actividad de sus colegiados se someta, en todo caso, a las normas deontológicas de la profesión y a las requeridas por la sociedad a la que sirven, de forma que queden plenamente garantizados los intereses generales relacionados con el ejercicio de la profesión de enfermería.

b) Ordenar, en su respectivo ámbito y dentro del marco legal establecido, el ejercicio de la profesión.

c) Ejercer la potestad disciplinaria en los términos previstos en el articulo 19 de la Ley 18/1997, de 21 de noviembre.

d) Establecer baremos de honorarios, que tendrán carácter meramente orientativo.

e) Emitir informe en los procesos judiciales y en los procedimientos administrativos en los que se discutan cuestiones relativas a honorarios profesionales o a cualquier otra relacionada con el ejercicio de la profesión de enfermería.

f) Prestar servicios comunes para los colegiados y, en especial, velar por el adecuado nivel de calidad de las prestaciones profesionales de los mismos, promover a tal efecto su perfeccionamiento y formación profesional permanente y velar por la efectividad del deber a esta última.

g) Atender a la formación continuada de las profesiones sanitarias no tituladas con el objeto de procurar la mejor atención de las exigencias y necesidades sanitarias de la población y del sistema sanitario vasco.

h) Atender a la formación de los sectores de la sociedad más necesitados en temas de salud.

i) Intervenir, en vía de mediación o arbitraje, en los conflictos profesionales que se susciten entre colegiados, o de éstos con terceros cuando así lo soliciten de común acuerdo las partes implicadas.

j) Colaborar con la Administración pública en el logro de intereses comunes. En particular, el COEGI:

– Participará en los órganos administrativos cuando así esté previsto en las normas reguladoras de los mismos y en los términos en ellas establecidos.

– Emitirá los informes que les sean requeridos por los órganos o entes competentes y aquellos otros que acuerden formular a su propia iniciativa.

– Elaborará las estadísticas que les sean solicitadas.

k) Adoptar las medidas conducentes a evitar el intrusismo y la competencia desleal, mediante el ejercicio de las acciones previstas por el ordenamiento jurídico.

l) Aurrekontuak onartu eta elkargokideek egin beharreko ekarpenak arautzea.

m) Gai espezifikoei buruzkoak jakitea eskatzen den epaimahaietarako ordezkariak izendatzea —hala eskatzen bazaie—.

n) Ikastetxeekin harremanetan egotea beti, eta beharrezko informazioa eskaintzea profesional berriei lanbidean sartzea errazago gerta dakien.

o) Bere eremuaren barruan lanbidea ordezkatu eta defendatuko du Administrazioaren, Erakundeen, Auzitegien, Entitateen eta partikularren aurrean. Lanbidearen interesei eragiten dien auzietan alderdi izateko legitimazioa izango du, eta Legearen arabera eskatzeko eskubidea izango du; horrek ez du esan nahi, Elkargo profesionalei buruzko Legearen 1.3. artikuluan ezarritakoa beteko ez denik.

p) Elkargokideen interesekoak diren jarduera eta zerbitzu komunak antolatzea eta sustatzea; hain zuzen ere, lanbide, prestakuntza, kultura, laguntza, aseguru, aurreikuspen eta antzekoei loturiko jarduera eta zerbitzuak izango dira. Jarduerok burutu ahal izateko beharrezko diren baliabide-ekonomikoak erabiliko ditu.

q) Elkargokideen arteko harmonia eta elkarlana lortzen saiatzea, eta euren arteko bidegabeko lehia galaraztea.

r) Ikerketa eta elkargokideen gaitasun profesionala sustatzea, arreta berezia ipiniz graduondoko prestakuntzako ikastaro eta jardueren urteko programetan. Hori guztia Elkargoaren aurrekontu orokorren kontura egingo da, dauden errekurtsoen arabera.

s) Osasun alorreko edo beste edozein alorreko korporazio profesionalekin lankidetzan aritzea, koordinatzea edo jarduteko irizpideak bateratzea.

t) Elkargokideei, ahalik eta modurik egokienean, lanbideaz kanpoko zerbitzuak eskaintzea; aukera zabala egongo da: aisia, etxebizitza, aseguruak, bitarteko teknikoak edo antzeko beste edozer.

u) Eskaintza-mugarik ez duten eta elkargokideen interesen onerako izango ez diren egoera administratiboak sortzen ez dituzten ekintzak martxan jartzea, garatzea eta horietan parte hartzea; hala nola, elkarteak, fundazioak, kooperatibak, enpresak, lankidetza komertzialak eta beste edozein zerbitzu-linea sortzea.

v) 18/1997 Legearen 25. artikuluan adierazitako moduan eskuordetutako edo agindutako egiteko administratibo guztiak.

w) Erizaintzako profesionalen gaitasunaren kalitate-kontrola egiteko beharrezko diren ebazpenak hartzea; horrela, osasunerako eskubidea bermatzen ahaleginduko da.

x) Elkargo Profesionalei buruzko otsailaren 13ko 2/1974 Legearen 5. artikuluak adierazten dituen guztiak (artikulu honetan adierazi ez direnak)

l) Aprobar sus presupuestos y regular las aportaciones de los colegiados.

m) Designar representantes en cualquier tribunal en que se exijan conocimientos relativos a materias específicas, siempre que se le requiera para ello.

n) Mantener permanente contacto con los centros docentes, ofertando la información necesaria para facilitar el acceso a la vida profesional de los nuevos profesionales.

o) Ostentar, en su ámbito, la representación y defensa de la profesión ante la Administración, Instituciones, Tribunales, Entidades y particulares, con la legitimación para ser parte en cuanto litigio afecte a los intereses profesionales y ejercitar el derecho de petición conforme a la Ley, sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado 3 del artículo 1.º de la Ley de Colegios Profesionales.

p) Organizar y promover actividades y servicios comunes de interés para los colegiados de carácter profesional, formativo, cultural, asistencial, aseguramiento y de previsión y de otros análogos, proveyendo al sostenimiento económico mediante las medidas necesarias.

q) Procurar la armonía y colaboración entre los colegiados, impidiendo la competencia desleal entre los mismos.

r) Fomentar la investigación y la capacitación profesional de los Colegiados, poniendo especial énfasis en programas anuales de cursos y actividades de formación postgrado con cargo a los presupuestos generales del Colegio en función de los recursos disponibles.

s) Colaborar, coordinarse o unificar criterios de actuación con otras corporaciones profesionales sanitarias o de cualquier ámbito en general.

t) Ofrecer a los colegiados en las mejores condiciones posibles la más extensa gama de prestaciones extraprofesionales como ocio, vivienda, seguros, medios técnicos o cualquiera otras de naturaleza análoga..

u) Poner en marcha, participar y desarrollar actividades sin limitaciones de oferta ni de situaciones administrativas que redunden en beneficio de los intereses de los Colegiados, comprendiendo la creación de asociaciones, fundaciones, cooperativas, empresas, colaboraciones comerciales y cualquier línea de servicios.

v) Cuantas funciones administrativas le puedan ser delegadas y/o encomendadas en los términos a que se refiere el art. 25 de la L 18/1997.

w) Adoptar las resoluciones que procedan para llevar a cabo el control de calidad de la competencia de los profesionales de enfermería como medio para tratar de garantizar el derecho a la salud.

x) Todas aquellas a las que se refiere el art. 5 de la ley 2/1974, de 13 de febrero, de Colegios Profesionales y que no se hallen comprendidas en las en este artículo expuestas.

y) Fitxategietan jasorik dauden elkargokideen eta langileen datu pertsonalak jakinaraztea Administrazio publikoei eta hirugarrenei, baldin eta euren helburuak betetzeko beharrezko gertatzen bazaie.

z) Elkargokideen interes profesional eta partikularren onerako izango diren egiteko guztiak.

II. KAPITULUA.– ELKARGOKIDEAK.

7. *artikulua*.– Elkargokide egitea.

1.– Honako titulu hauetakoren bat dutenak derrigorrez eta eskubide-berdintasunez sartuko dira COEGIn: Erizaintzako Diplomatura, ATS, Praktikantea, erizaina, emagina edo bihar-etzi erizaintzarekin lotuta ezar daitekeen beste edozein titulu. Pertsona horiek Gipuzkoako Lurralde Historikoan —bakar-bakarrik edo nagusiki— jarduteko asmoa izan behar dute —eurentzako edo besterentzako—, eta Estatutu hauetan ezarritako baldintzak bete behar dituzte.

Hala ere, ez dira elkargokide egingo herri-administrazioaren zerbitzura lanean diharduten erizaintzako profesionalak, baldin eta burutzen dituzten ekintza profesionalen zuzeneko hartzaileak herritarrak ez badira.

2.– Halaber, Europako Batasunekoak, Europako Esparru Ekonomikokoak eta Estatu Espainiarrarekin elkarrekikotasun- eta onarpen-hitzarmenak izenpetu dituzten herrialdeetakoak ere elkargokide izan daitezke, baldin eta zainketa orokorretako erizainaren ziurtagiri, diploma edo tituluak egiaztatzen badituzte.

3.–Lanbidean jardunean ez daudenak ere, nahi izanez gero, elkargokide egin daitezke, baldin eta artikulu honen lehen paragrafoan adierazitako tituluren baten jabe badira. Elkargokide horiek jardunean daudenen erregimen berbera izango dute lan-jardunarekin zerikusirik ez duten alderdiei dagokienez, nola eta Estatutu hauek kontrakoa ezartzen ez duten edota gobernu-batzordeak arrazoiak emanez bestelakorik agintzen ez duen.

4.– Hala ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoan noizbehinka jardun nahi duten profesionalek, horretarako beharrezkoak diren baldintzak betetzen badituzte, jarduteko aukera izango dute; horretarako, Elkargoari jakinarazi beharko diote lurralde horretan burutu behar dituzten ekintzak zeintzuk diren, Elkargoaren antolamendu-eskumenen, deontologi-kontrolaren eta diziplina-ahalmenaren menpe egon daitezen.

5.– Halaber, Elkargoaren barruan kokatu behar dira Ohorezko Elkargokideak. Titulu hori gobernu-batzordearen erabaki baten bidez emango zaie Elkargoarentzat berarentzat edo lanbidearentzat zerbitzu naba-

y) Comunicar los datos personales de sus miembros y empleados recogidos en sus ficheros, a cuantas Administraciones Públicas y terceros, sea necesario para el cumplimiento de sus fines.

z) Cuantas otras funciones redunden en beneficio de los intereses profesionales y particulares de los colegiados.

II.– DE LOS COLEGIADOS.

*Articulo* 7.– Adquisición de la condición de colegiado

1.– En el COEGI se incorporarán con carácter obligatorio e igualdad de derechos corporativos, quienes se encuentren en posesión del correspondiente Titulo de Diplomado en Enfermería, A.T.S, Practicante, Enfermero/a, Matrona, y cualquier otro que en el futuro se pueda establecer en relación y vinculado a la profesión de Enfermería, y tengan el propósito de ejercer su profesión, con carácter único o principal, en el ámbito del Territorio Histórico de Gipuzkoa, lo hagan por cuenta propia o por cuenta ajena y cumplan los requisitos establecidos en los presentes Estatutos.

No obstante, quedan exceptuados de colegiarse los profesionales de enfermería al servicio de la Administración pública cuyas funciones comprendan la realización de actos profesionales cuyos destinatarios inmediatos no sean los ciudadanos.

2.– Igualmente podrán adquirir esa condición de colegiado los nacionales de la UE o Espacio Económico Europeo y de los países con los que el Estado Español mantenga convenios o acuerdos de reciprocidad y reconocimiento, que acrediten certificado, diploma o títulos reconocidos y homologados de enfermero responsable de cuidados generales.

3.– También podrán incorporarse, voluntariamente como no ejercientes, quienes ostentando alguno de los títulos señalados en el párrafo primero de este artículo no estuviesen en el ejercicio de la profesión. Estos colegiados gozarán del mismo régimen que el de los ejercientes en todos los aspectos ajenos al ejercicio profesional, salvo que estos estatutos establezcan algo distinto o la Junta de Gobierno disponga otra cosa motivadamente.

4.– No obstante, los profesionales, que reuniendo los requisitos necesarios para ello, quieran ejercer la profesión con carácter ocasional en el ámbito del Territorio Histórico de Gipuzkoa, podrán hacerlo siempre que comuniquen a este Colegio las actuaciones que vayan a realizar en dicha demarcación, a fin de quedar sujetos a las competencias de ordenación, control deontológico y potestad disciplinaria de este Colegio.

5.– Asimismo estarán integrados en la organización Colegial los Colegiados de Honor, título que será otorgado, por acuerdo de la Junta de Gobierno, a las personas que rindan o hayan rendido servicios destacados

riak eman dituzten pertsonei. Pertsona horiek elkargokoak edo elkargoz kanpokoak izango dira. Ohorezko Elkargokideek estatutu hauetan ezartzen diren eskubideak izango dituzte.

6.– Jubilazioa edo baliaezintasuna dela medio lanbidean jardun ezin duen elkargokidea jardunean ez dagoen elkargokidetzat hartuko da; desberdintasun bakarra izango du: ez du elkargoko kuotarik ordaindu beharrik izango.

*8. artikulua.*– Onartua izateko eskubidea.

COEGIn onartuak izateko eskubidea izango dute, beharrezko titulazioa izanik, legeetan, Elkargoaren Estatutu Orokorretan edo Estatutu hauetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eta berariaz eta idatziz gobernu-batzordeko lehendakariari elkargokide izateko eskaera egiten diotenek. Honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Lanbideko titulua eta bere fotokopia. Ikasketak amaitu dituela egiaztatzen duten agiri akademikoak onartuko dira, titulua lortzeko eskubideak ordaindu izanaren frogagiriekin batera. Agiri horiek behin-behineko balioa izango dute, titulua eman artekoa; behin titulua jasota, aurkeztu egin beharko da erregistratua izan dadin.

b) NANaren edo antzeko agiriaren fotokopia; originala ere erakutsi egin beharko da.

c) Elkargoan sartzeko kuota ordaindu duela egiaztatzen duen agiria.

d) Erizaintzan edo erizaintzaren espezialitateren batean jarduteko ezgaituta edo lan horretatik kenduta ez dagoela dioen zinpeko aitorpena.

e) Legeak zehazten duen beste edozein agiri.

*9. artikulua.*– Baztertzeak.

Aurreko artikuluan ezarritakoak ezarrita ere, ez dira COEGIn onartuko honako hauek:

a) Epai irmo baten bidez lanbidean jarduteko ezgaituak izan direnak, harik eta gaitasungabetze hori baliogabetzen den arte.

b) Elkargo Profesional batean baja eman zaienak, hutsegite larria edo oso larria egin dutelako. Hutsegite horien ondorioak honako hauek izango dira: elkargokide izateari uztea, lanbidetik kentzea eta beste Elkargo batean sartzeko ezgaitzea denbora baterako. Horrek guztiak hutsegitea indargabetu artean iraungo du.

*10. artikulua.*– Onartuak izateko prozedura.

1.– Gobernu-batzordeak onartzea erabakiko du, baldin eta aurreko artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen badira. Sarrera ukatzea ere erabaki dezake; jakinarazi egin beharko du hori, arrazoiak emanez. Kasu horretan, Elkargoan sartzeko kuota itzultzea erabakiko du, eta ezar daitezkeen errekurtsoen berri emango du.

al propio Colegio o a la Profesión, pertenezcan o no a la misma. Los Colegiados de Honor tendrán, como tales, los derechos que se desprendan de estos estatutos.

6.– El colegiado que deje de ejercer la profesión por jubilación o incapacidad tendrá la misma condición que el colegiado no ejerciente, con la salvedad de que estará exento del pago de las cuotas colegiales.

*Artículo 8.*– Derecho a la admisión

Tendrán derecho a ser admitidos en el COEGI aquellas personas que ostenten la titulación adecuada, reúnan las demás condiciones determinadas en la Ley, en los Estatutos Generales de la Organización Colegial o en los presentes Estatutos y lo soliciten, expresamente y por escrito, al Presidente de la Junta de Gobierno, presentando los siguientes documentos:

a) Título profesional y fotocopia del mismo. Provisionalmente se admitirá la certificación académica acreditativa de la terminación de los estudios, con el resguardo de haber abonado los derechos de expedición del título hasta la entrega de éste, momento en el que deberá ser presentado para su registro.

b) Fotocopia del DNI o documento equivalente y presentación del original.

c) Recibo acreditativo de haber satisfecho el pago de la cuota de ingreso.

d) Declaración jurada en la que se afirme no estar inhabilitado, ni suspendido para el ejercicio profesional de la enfermería ni de sus especialidades, en su caso.

e) Cualquier otro que determine la ley.

*Artículo 9.*– Exclusiones

No obstante lo establecido en el articulo anterior, no podrán ser admitidos en el COEGI.

a) Los que hayan sido condenados por sentencia firme, que lleve aparejada la inhabilitación para ejercer la profesión y hasta que ésta no haya sido cancelada.

b) Los que hayan sido dados de baja, en cualquier Colegio Profesional, por motivo de sanción disciplinaria por falta grave o muy grave, que conlleve: suspensión de la condición de colegiado, suspensión del ejercicio profesional o inhabilitación para incorporarse a otro Colegio Profesional por tiempo determinado y todo lo anterior hasta que dicha falta haya sido cancelada

*Artículo 10.*– Procedimiento de admisión

1.– La Junta de Gobierno acordará la admisión siempre que se cumplan los requisitos señalados en los artículos anteriores. En otro caso, acordará y notificará la denegación razonada del ingreso, y la devolución de la cuota de ingreso, indicando los recursos procedentes.

2.– Elkargoan onartzeko eskaera egin zenetik bi hilabete igaro badira, eta eskatutako baldintza guztiak bete arren, gobernu-batzordeak ebazpenik eman ez badu, elkargoan behin betiko alta eman dela ulertuko da. Dena dela, eskaera egin ondoren eta 8. artikuluan eskatutako agiri guztiak aurkeztu direla egiaztatu ondoren, behin-behineko alta eman dakioke eskatzaileari, eta horrek lanbidean jarduteko gaitasuna emango dio.

3.– Elkargorako sarrera ukatzeko emandako ebazpenen aurka errekurtsoa ezar dakioke Erizaintzako Elkargoen Euskal Kontseiluari, edo bestela, Kontseilu Nagusiari. Erreklamazioa hilabeteko epean egin beharko da, Ebazpena jakinarazten denetik kontatzen hasita.

*11. artikulua.–* Elkargokide izateari uztea eta gaitasungabetzea.

1. Elkargokide izateari utziko zaio honako kasu hauetan:

a) interesatuak berak eskatuta; gobernu-batzordeko lehendakariari idazki baten bidez jakinaraziko dio hori —arrazoiak emanez—, eta ezingo du lanean jardun.

b) Gobernu-batzordearen erabakiz. Elkargoaren lau kuota arrunt edo Batzar Nagusiak erabakitako aparteko kuotak ez ordaintzea, aurrez ordaintzeko eskatu arren.

c) Lanbidean jarduteko baldintzak ez betetzeagatik; kasu horretan, jarduna galarazten duen hori gertatzen den unetik aurrerakoa izango da baja.

2.– Aurreko paragrafoko b) idatz-zatian adierazten den kasuari dagokionez, zera esan behar da: ohiko eta aparteko kuotak borondatez ordaintzeko ezarritako epea amaitzen denean, gobernu-batzordeak zor dituen kuotak ordain ditzala eskatuko dio elkargokideari; hamabost eguneko epea emango dio ordaintzeko, eta zera ohartaraziko dio: epe horretan ordaindu ezean, Elkargoan baja emango zaiola, eta gainera, zor dituen zenbatekoak -%20ko gainordainarekin- ordaintzea eska dakiokeela auzibidea erabiliz.

3.– Elkargokide izateari utzi izana jakinarazi egin beharko da lantokian, legezko ondorioak izan ditzan.

4.– Lanbidean jarduteko ezgaitzen duen epai irmoarengatik ez da elkargokide izaera galduko, baina eten egingo da, ondorio guztietarako, egoera horrek dirauen artean. Ez da, ordea, etenik egongo zehapen egintzak Elkargoari lotutako zenbait jardueretan aritzeko baimena ematen badu, nahiz eta lanbidean aritzea debekatu.

5.– Elkargokide izaera galtzeak ez du esan nahi sortutako betebeharrak bete behar ez direnik, ez eta bajak ondorioak izan aurreko kuotak –ohikoak eta apartekoak- ordaindu behar ez direnik ere.

2.– Transcurridos dos meses desde la presentación de la solicitud de admisión y cumplidos todos los requisitos exigidos para ello, sin que se haya resuelto sobre la misma por la Junta de Gobierno, se entenderá concedida el alta colegial definitiva, sin perjuicio de que, formulada la solicitud y una vez comprobada la presentación de todos los documentos exigidos en el art. 8, se pueda dar a la persona solicitante un alta provisional, que le habilite para el ejercicio profesional.

3.– Contra las Resoluciones denegatorias de las peticiones de incorporación, podrá reclamarse ante le Consejo Vasco de Colegios de Enfermería o en su defecto ante el Consejo General. La reclamación habrá de formularse en el plazo de un mes desde que se le notifique la resolución.

*Articulo 11.–* Pérdida de la condición de colegiado e inhabilitación

1. La condición de colegiado se perderá:

a) a petición propia del interesado, mediante escrito dirigido al Presidente de la Junta de Gobierno, donde se indiquen las causas de las mismas y siempre condicionada a la falta de ejercicio profesional.

b) Por acuerdo de la Junta de Gobierno. Por falta de pago de cuatro cuotas ordinarias reglamentarias del Colegio o de las Extraordinarias que acuerde la Asamblea General, previo requerimiento de pago al efecto.

c) Por no reunir los requisitos de ejercicio, en cuyo caso la baja se produce desde el mismo momento en que tenga lugar el hecho imperiente.

2.– En el supuesto del apartado b) del número anterior de este artículo, transcurridos los periodos en que deban ser pagadas voluntariamente las cuotas ordinarias o extraordinarias a que se refiere el mismo, la Junta de Gobierno deberá requerir al colegiado para que abone las cuotas adeudadas, dándole un plazo de quince días para hacerlo, con la advertencia de que si no lo hace en dicho plazo, se procederá a darle de baja en el Colegio, sin perjuicio de que, además, se acuerde reclamarle, por la vía judicial, las cantidades adeudadas, junto con un recargo del 20%.

3.– Igualmente la pérdida de la condición de colegiado deberá ser notificada al centro de trabajo en que el mismo preste sus servicios a los efectos legales oportunos.

4.– Por condena firme que lleve consigo la accesoria de inhabilitación para el ejercicio de la profesión no se perderá la condición de colegiado, si bien la misma quedará suspendida a todos los efectos en el periodo de su duración, salvo que el acto sancionador permitiese la continuidad en aspectos colegiales no vinculados al ejercicio profesional.

5.– La pérdida de la condición de colegiado no liberará al interesado del cumplimiento de las obligaciones vencidas, ni del pago de las cuotas ordinarias y extraordinarias, impuestas antes de que la baja surta efectos.

6.– Baja-eskaerak gobernu-batzordeak ebatziko ditu, eta erabaki horien aurka gora jotzeko errekurtsoa ezarri ahal izango zaio Erizaintzako Euskal Kontseiluari, edo haren faltan, Kontseilu Nagusiari.

*12. artikulua.*– Elkargoan sartzea eskatzen ez duten egoerak

Aurreko artikuluetan ezarritakoak ez du esan nahi OLT-ED titulazioa duen pertsona batek, Elkargoan inskribatu gabe egonda, lanean jardun ezin duenik. Honako kasu hauetan jardun ahal izango du:

a) Laugarren mailarainoko odol-ahaidetasuneko edo ezkon-ahaidetasuneko senitartekoak zaindu behar dituenean.

b) Premia larriko egoeretan halabeharrez jardun behar duenean.

*13. artikulua.*– Hainbat Elkargotan sartzea.

Profesional oro nahi adina Elkargotan sar daiteke, baldin eta Elkargo bakoitzaren Estatutu berezietan ezarritako baldintzak betetzen baditu eta elkargoko kuotak ordaintzen baditu.

*14. artikulua.*– Elkargokideen eskubideak.

1. Jardunean dauden elkargokideek honako eskubide hauek izango dituzte:

a) Erizainari dagozkion egitekoak burutzea, lanbidearen arauen arabera.

b) Korporazioaren kudeaketan parte hartzea, eta ondorioz, eskatzeko eskubidea, boto-eskubidea eta zuzendaritza-karguetan jarduteko eskubidea izatea.

c) Urtero egingo den Batzar Nagusiaren bidez, Elkargoak egin dituen kudeaketa eta ekintzen berri eta Elkargoaren urteko aurrekontuen berri izatea. Informazio hori guztia Elkargoaren iragarki-oholean ipiniko da Batzar Nagusia egin baino hamabost egun lehenago, eta fotokopiak emango zaizkie eskatzen duten elkargokideei.

d) Lanbidean dihardutela irainduak edo jazarriak izaten badira, Elkargoaren babesa izatea –eurek hala eskatzen diotenean-.

e) Elkargoaren ordezkaritza eta aholkularitza izatea, lan-jardunean oinarritutako erreklamazioak aurkeztu behar dituztenean; aholkularitza horrekin lotutako gastuak eurek ordaindu beharko dituzte, nola eta gobernu-batzordeak arauz kontrakoa erabakitzen ez duen.

f) Profesionalak babesteko ezarri diren aurreikuspen-erakundeetako partaide izatea.

g) Gobernu-batzordeari eta Kontseiluari beharrezko jotzen dituzten kexa, eskaera eta ekimenak aurkeztea; oinarri egokiak dituen idazki bat aurkeztu beharko dute.

h) Elkargoaren kontabilitate-liburuak eta aktak aztertuak izatea (elkargoan, eta gobernu-batzordeko ki-

6.– Las solicitudes de baja serán resueltas por la Junta de Gobierno y contra dichos acuerdos se podrá interponer Recurso de Alzada ante el Consejo Vasco de Enfermería o, en su defecto, ante el Consejo General.

*Artículo 12.*– Supuestos en que no es obligatoria la colegiación

No obstante lo establecido en los artículos anteriores, toda persona en posesión de la titulación de ATS-DE, podrá realizar actos profesionales, sin necesidad de estar inscrito en el Colegio, en los casos siguientes:

a) Cuando su actuación profesional se limite a atención a parientes dentro del cuarto grado de consanguinidad o afinidad.

b) Cuando el ejercicio se limite a intervenciones accidentales de carácter urgente.

*Artículo 13.*– Incorporación a varios Colegios

Todo profesional podrá estar incorporado a cuantos Colegios desee, mediante el cumplimiento de los requisitos señalados en los Estatutos particulares de cada Colegio y el abono de las cuotas colegiales correspondientes.

*Artículo 14.*– Derechos de los colegiados

1. Los colegiados ejercientes tendrán los siguientes derechos:

a) Ejercer las funciones propias de enfermera/o con arreglo a la regulación de la profesión.

b) A participar en la gestión corporativa y, por tanto, ejercer el derecho de petición, el del voto y el de acceso a los puestos y cargos directivos.

c) A ser informados anualmente de las gestiones y actividades realizadas por el Colegio mediante la correspondiente Asamblea General y de los Presupuestos Anuales del Colegio. A tal fin, los mismos se publicarán en el tablón de anuncios del Colegio, con una antelación mínima de quince días antes de la fecha de celebración de la Asamblea General, entregándose fotocopias de los mismos a los colegiados que así lo soliciten.

d) A ser defendidos a petición propia por el Colegio, cuando sean vejados o perseguidos con motivo del ejercicio profesional.

e) A ser representados y asesorados por el Colegio en reclamaciones fundadas en la actividad profesional, sin perjuicio de tener que abonar los gastos relacionados con dicha asesoría, salvo que la Junta de Gobierno reglamentariamente decida lo contrario.

f) A pertenecer a las Entidades de Previsión que para proteger a los profesionales estuvieran establecidas.

g) A formular ante la Junta de Gobierno y el Consejo las quejas, peticiones e iniciativas que estimen procedentes y por escrito debidamente fundamentado.

h) A que, previa solicitud por escrito, los libros de contabilidad y de Actas del Colegio puedan ser exami-

de baten aurrean egin beharko da hori, eta aurrez eskatu beharko da), eta erabakien ziurtagiriak egitea eskatzea. Hori guztia egiteko, interes zilegia eta zuzena dutela egiaztatu beharko dute. Gobernu-batzordeak eskubide honetaz baliatzeko arauak ezarriko ditu.

i) Sortu eta onartu den bereizgarria erabiltzea.

j) Elkargoaren bulegoak edo lokalak erabiltzea; aurrez eskatu beharko da, eta justifikatu egin beharko da. Gobernu-batzordeak eskubide honetaz baliatzeko arauak ezarriko ditu.

k) Elkargoak emandako laneko nortasun-agiria erabiltzea.

l) Kontseilu Nagusiari edo Autonomia Erkidegokoari egin behar dizkioten eskaera edo erreklamazioak Elkargoaren bidez izapidetzea —Elkargoak txostena egin beharko du nahitaez—.

m) Kontzientzia-eragozpenerako eta lanbideko sekreturako eskubidea; mugak ordenamendu konstituzionalak eta Kode Deontologikoan jasota dauden lanbidearen arau etikoek ezarriko dituzte.

n) Elkargoak hartzen dituen erabakien informazio zehatza izatea, baldin eta erabaki horiek eragiten badie.

2. Jardunean ez dauden elkargokideek ez dute izango artikulu honen 1. paragrafoan lan-jardunarekin lotuta adierazi den eskubiderik, nola eta estatutu hauetan berariaz besterik adierazten ez den. Paragrafo honetako beste eskubideei dagokienez, berriz, Estatutu hauen 7.3 artikuluan ezarritakoa aplikatuko zaie.

3. Ohorezko elkargokide titulua lortu duten erizaintzako profesionalak modu eraginkorrean egongo dira Elkargoan, jardunean dauden elkargokideek dituzten eskubide eta betebehar guztiekin; jardunean ez badaude, lan-jardunarekin zerikusia duten zerbitzurik ez dute emango. Ohorezko elkargokide horiek, Korporazio osoaren aitorpena dutenez, ezingo dira hautatu edo izendatu gobernu-batzordeko zuzendaritza-karguetarako.

